

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako espazio naturalen sareak ekintzaitza-dinamikak abian jarri ditu landa-ingurunean jarduera eta enplegua sortzeko helburuarekin

Ayerdi lehendakariordeak eta Solana eta Elizalde kontseilariak, tokiko agenteekin eta enpresa eta elkarte arloetako agenteekin batera hartu dute parte 'Berdean ekin; ingurune natural aktiboaren aldeko' jardunaldian; hau da, Gobernuko lau departamentu inplikatzten dituen proiektua

Asteartea, 2018.eko urriak 23

Nafarroa ezagutu sarea ia hogeita hamar bat espazio natural eta berezik osatzen dute, eta Foru Komunitatearen lurraldeko eskualde guztietan banatzen dira. Sarea gaur Baluartean egiten ari den jardunaldi teknikoan, ibilbide-orri bat prestatzen hasi da landa-ingurunean ekintzaitza-programa garatzearren, gune natural horietan jarduera ekonomikoa, turistikoa, hezkuntza-arlokoa eta enplegua sortzeko helburuarekin.



Ayerdi lehendakariordea eta Solana eta Elizalde kontseilariak, gainerako parte-hartzaileekin batera.

Ezagutu sarera elkarturiko espazioen kudeaketa-sistemak dinamizatzeko eta modernizatzeko dinamika Nafarroako lurraldearen eta iraunkortasunaren Lursarea agentziak bultzatzen du, eta Foru Exekutiboko lau departamentu inplikatu dira, gobernuaren zeharkako ekintza batean, politika soilik kontserbazionistetatik haratago eta ingurune naturala jarduera-motor gisa hartuta. Hain zuzen ere, gaur Baluartean egiten ari den jardunaldiaren goiburua 'Berdean ekin; ingurune natural aktibo baten alde' deitzen da, eta irekieran honako hauek hartu dute parte: Nafarroako Gobernuko Ekonomia Garapeneko lehendakariordea den Manu Ayerdik; Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak, Isabel Elizalde; Hezkuntzako kontseilari María Solanak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzu-Nafar Lansareren zuzendari kudeatzaileak, Paz Fernándezek.

Ezagutu sarearen elkartean ia ehun bat udalerrri, tokiko ekintzako talde edo elkarte-agente eta Nafarroako ingurune naturalen inguruan lan egiten duten kudeatzaile eta enpresa-arloko langileak biltzen dira, eta hogeita hamar bat gunetik gora ere bai. Tartean aipatzekoak dira

ondorengoak: Bertizko parkea, Iratiko Basoa, Plazaolako bide berdea, Arbaiungo arroila, Zugarramurdiko eta Urdazubi / Urdaxko kobazuloak, Orreagako igarobidea, Pitillasko aintzira, Bardeetako parke naturala, Allotzeko urtegia, Baldorbako mendiak edo Erdialdeko Zonako bisoi-lurraldea. Proiektuaren helburua da informaziorako eta kudeaketarako sistema komuna sortzea, jendea artatzeko zerbitzuak, eta baliabide turistikoak, nekazaritzako tokiko elikagaien edo inguruneke programa kulturalen sarea osatzea.

Talentua eta enpresak sortzea landa-ingurunean

Ayerdi lehendakariordeak jardunaldia irekitzerakoan ondorengo adierazi du: “Gobernuak lurraldean duen erronka da asmo handiko eta zeharkako estrategia hedatzea, ikuspegi soilik kontserbazionista gaudituko duena eta Nafarroako gune naturalak garapen iraunkorraren benetako motore eta landa-mundu bizi eta aktiboaren arteria bilakatuko dituen”. Era berean, Manu Ayerdik azpimarratu du Ezagutu sarearen proiektuak “erabat bat egiten duela Nafarroako Ekintzailtzaren 2017-2019 Planaren helburuekin, landa-ingurunean ere talentua sustatzeko, gune naturalen inguruan enpresak sortzea errazteko eta Foru Komunitateko jarduera-tasa hobetzeko ondare naturala aprobetxatuz”.

Bestalde, Elizalde kontseilariak azaldu du Ezagutu sarearen proiektuak “balio naturalak kontserbatzeko, landa-ingurunean ekonomia sortzeko eta lurraldean gizarte-kohesioa izateko estrategiak batzea lortu duela”, eta “Foru Komunitateko eskualde guztietan jardueraren eta garapen iraunkorraren motore nagusietariko bat izatera iritsi behar da”.

Irekieraren hirugarren ekarpenean, berriz, Solana kontseilariak Ezagutu sareak ikastetxeekin eta institutuekin programaturiko jarduerak aipatu ditu, eta goraiatu du “honako hau bezalako proiektu hain erakargarriak gure ikasleei aukera eskaintzen diela landa-ingurunearekin harremanetan jartzeko modua ezagutzeko, lurralde-erreferentziekin identifikatzeko, ingurunekeoa izatearen sentimendu egokia lantzeko eta landa-ingurunean benetako abentura gisa bizitzeko”. Aldi berean, Hezkuntzako kontseilariak landa-ingurunea Nafarroako LHko 2017-2020 Plan Estrategikoarekin lotu du eta “prestakuntza jasotzeko, enplegua sortzeko edo LH duala garatzeko aukerekin, Nafarroako hogeita hamar bat espazio natural eta berezi baino gehiagotan jarduera sortzeko aukera eskaintzen baitigu”.

Ehun teknikari eta tokiko agente baino gehiagok hartu dute parte gaur ‘Ekin berdean; ingurune natural aktibo baten alde’ izeneko jardunaldian osatutako lan-talde ezberdinetan, eta ekimen ezberdinak aztertu eta bateratu dituzte lan-ildo hauek jorratze aldera: “ingurune naturaletan, jarduera sozial, kultural eta ekonomikoko aukera eta dinamizazio espazioak sortzea”, “merkatuan tokiko produktuen kontsumoa eta nekazaritzako elikagaien produkzio-prozesu iraunkorrak edo hurbilekoak indartzea”, baliabide naturalei balioa ematea “haien aprobetxamendu iraunkorra eta bertako biztanleriaren ongizaterako itzulera sustatzeko” edo “ekonomia zirkularreko eta energia iraunkorra sortzeko estrategiak eratzea”, besteak beste.

European Cyclist Federation eta Biodibertsitatea Fundazioa

Horrez gain, jardunaldian zehar, txosten bana aurkeztu dituzte, batetik, European Cyclist Federation-en arduradunak, Holger Haubold belgikarrak, ‘Europan zikloturismoak duen inpaktu ekonomikoaren’ inguruan, eta, bestetik, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren Biodibertsitatea Fundazioaren proiektu-buruak, Bruno Ruizek, ‘ekintzailtza berdea benetako eta etorkizuneko aukera gisa’-ri buruz.

Halaber, Estatuko zona ezberdinetan arrakasta handiarekin abian jarritako ekintzailtza berdeko dozena bat proiekturen arduradunek beren esperientziaren berri eman dute, tartean honako hauek: Nafarroako Metautengo Trufaren Museoa, Erriberriko Ochoa upeldegia, Bardeetako Gida edo Lizasoko Eskola Granja eta Tuterako Bee Standars, nahiz Asturiasko Victorino, Madrilgo Cyclos Kooperatiba, Segoviako La Pina eta Errioxako el Colesterol Elkarteak.

Jardunaldian mahai-inguru bat ere egin da, eta, bertan, CEINGo enpresak sortzeko arloaren buruak, Pilar Tellecheak, parte hartu du honako hauetako arduradunekin batera: Erriberako Eder toki-ekintzako taldeak, Erdialdeko Zonako garapen Kontsortzioa, Lizarrako Teder eta Mendiko Cederna-Garalur; baita ere, bertan izan dira Nafarroako Gobernuako teknikariak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar

Lansareko bulego ezberdinetako teknikariak.

Baluarteko topaketa gaur arratsaldean amaituko da prestakuntzako hainbat saiorekin eta networking-arekin, Nafarroan ekintzailtza berdearen plana egiteko ibilbide-orria egitearren. Lan horretan inplikatuko dira agente pribatuak, enpresak eta elkarteak, toki-ekintzako taldeak eta toki-erakundeak eta Nafarroako Gobernuaren lau departamentuak, jardunaldian parte hartu dutenak.